



Legealdiko lau urteren balantzea 2011-2015

Udal Informazio Aldizkaria

EZKABARTE



2015ko martxoa
[41. zenbakia]



Udal hauteskunde berrien atarian gaude.

Heldu den maiatzaren 24an herritarrak berriro sartuko dute bere botoa hauteskontzietan.

La lau urte iragan dira Alkatetzak honek bere ibilaldia hasi zuenetik, asmo bakarrarekin: **ibarrarengatik eta ibarraren alde, auzoko guztien alde, lan egitea.**

Egia da, gogoia eta ilusioa izan arren, batzuetan gure proposamen guztiak ez daitezkeela gauzatu gorabehera asko direla kausa: akordiorik eza, eta, bistan da, diru-sarrerarik eza, legealdi honetan nabarmenki murriztuak, murrizketak eta azken urteotan pairatzen ari garen krisia.

Hori hala izanik ere, **alkatetzak honek lau urte hauetako balantze "positiboa" egin nahi du.**



Azpiegiturei dagokienez, ondoko obra hauek egin dira, **Nafarroako Gobernuak partez diruz lagunduta:**

- Santiago karrikako tarte baten zoladura, Orikainen.
- El Medio karrikako zoladura eta zaharberritzea Soraurenen.
- Plaza berri baten eraikuntza, zoladura eta moldatzea Zildozen, hiri-tresneria paratuz eta ingurunea egokituz (frontis txiki bat eta harmailak sorturik, pilota leku modura, berdegune batekin). Hori guztia auzokoekin adosturik.
- San Juan karrikako zoladura eta moldatzea, Orrion.
- Argiteria publikoaren berritzea Ezkaban.



- ⊗ Azotzen, Bertxera plaza berriaren inguruan eraiki den markesinaren gerizpean itxoin daiteke eskolako autobusa dagoeneko. Udalak gauzatu du obra. Hormigoizko zolata eta zintarriak dituen espazio libre eta irekia non zenbait zuhaitz landatzeko asmoa dago, udako hilabeteetako eguzkialdietatik babesteko.
- ⊗ Orikainen abiadura moteltzeko bandak instalatu dira auzokoan segurtasuna eta ongizatea errazte aldera.
- ⊗ Aurreko Udal Buletinean aipatu genuen Udalak Arreko Irun etorbideko tarte, ATP enpresaren parean, egokitze lanak hasiak zituela. Egun, "pasealeku" hori errealitate bihurtu da oinezkoen lasaitasunerako. 2013ko ekainean izandako eurite ugariak zirela kausa eta, ondorioz izandako uholdeengatik, Arreko Igueldea futbol zelaia eta bertako instalazioak larriki ukituak suertatu ziren. Udalak bere gain hartu zituen zelaia inguratzen duen hesiaren desmuntaketa eta muntaketa, bai eta oinezkoendako metalezko atearen instalazioa ere. Aldagelek ere kalteak izan zituzten, uraren indarrak tokiz aldatu baitzuten. Hortaz, jatorrizko tokian paratu, konpresio-plaka bat bota, iturgintza lanak, e.a egin behar izan ziren. Martxoan aurreikusirik dago Arreko Hirutasunaren eremuko egokitze lana

- eta espaloia egitekoa hastea, Ultzama ibaiako ezker aldetik. Ukituriko eremua mantentze egoera penagarrian dago eta Arretik Atarrabiara paseotan ibiltzen ohi diren oinezkoendako segurtasunik ez du. Proiektuak eremuaren egokitzea proposatzen du ibilgailuen, oinezkoen eta txirindularien trafikorako. Ezkabarteko Udalak obren sustapen, gauzatze eta finantzazioa hartu du bere gain, osotara 41.784,42 euro. Arreko kontzejuak eskatuta, Prada Arquitecturak proiektuaren idazketa egin du eta Kontzejuak herriko argiak jarriko du, Iruñerriko Mankomunitateak obraren kostuari 12.000 euro emanen dizkio, lanek Iruñerriko Ibai Parkeari jarraipena emanen baitiote.
- ⊗ Legealdiko lau urte hauetan zehar gauzaturiko lanen artean, badira munta gutxiagokoak ere. Horiek kontzejuarekin zein Mankomunitatearekin konpartitu dira, hala nola, Arreko zubi zaharreko konponketa, Arreko zubi berriaren moldaketa, Orikaingo hondartzako eremu berria, e.a.
- ⊗ Alkatetza honek Udal Planari eta LOE Eri (Lurraldea okupatzeko estrategia eta eredia) ekin die. Parte hartze prozesuaren ondoren, 2009an Udalaren Osoko Bilkurak onetsi zuen LOE Eri dagokionez zenbait aldaketa garrantzizko onetsi dira. Gaingiroki, erran dezakegu antolamendua arra-

- zionalizatuko dela, egoera ekonomiko berria kontuan harturik, hazkunde jasagarriaren aldeko apustua eginez eta antolamendutik kanpoko egoerak eta azpiegitura handiak egitea saihestuz. Azalera txikiagoko exekuzio unitateak zedarrizten saiatuko gara, beti ere eskaera kontuan hartuta. Aldaketa horren asmoa da auzokoan zein ingurunearen bizitza eta egoera hobetzea alde guztietatik.
- ⊗ Ingurumenaren, bideen eta Ultzama ibaiaren egoerarekin sintonian, Udalak Sigi-Saga enpresaren lana izan du lagun. Enpresa hori Udalak kontratatu zuen Ezkabarteko bide sareari buruzko azterketa egin zezan. Lan horren xedea da intereseko informazioa biltzea eta ondasun, mugigarritasun eta aisiaren arloetan tokiko kudeaketa erraztea. Beste aldetik, Estudios Territoriales enpresa, Alkatetza honek eskaturik, Ultzama ibai eta bere errekaen sareko diagnostiko orokorra eta hobekuntza hidraulikorako eta ingurumen hobekuntzarako proposamena egiten ari da, Soraurenen hasita Arren bukatzeko.
- ⊗ Orobat, Balorazio Ponentzia berria prestatzeko lanak hasi dira, gure jabetza higiezinaren katastro balioak egokitze urte bukaeran emaitza izanen dutenak.

Dena gutxi dela eta behar partikularrak lagundu eta konpontzea ezina dela jakinda ere, legealdi honetako beste helburu garrantzizkoetako bat izan da Udalerriko langabezia eta egoera ahulean dauden pertsoez dugun kezka.

→ Udalak Nafarroako Gobernuak, Gizarte Politiketako Departamentuaren eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bidez, eskaintzen dituen diru-laguntza guztiak baliatu ditu. Horrela, lau urte hauetan osotara 13 lagun kontratatu dira Askotariko Eginkizunetarako Zerbitzuari laguntza emateko. Kontratazio horiek iraupen zehatza dute, jeneralean 6 eta 9 hilabete artekoa, eta dagokion erakundeak eskatzen dituen beharkizunak betetzen dituzten langabetuarentzat.

→ Aukerak eta, kasu guztietan, arnasa pixka bat emate aldera, Udal Etxeko eta haren mendeko lokaletako garbiketa Oinarrizko Gizarte Zerbitzuari laguntza eskatu zioten pertsonen bitartez egin da. Osotara 7 lagun, bakoitza sei hilabeteko kontratazioarekin.


→ Udalean lan poltsa bat sortu da eta bertan auzoko langabetu guztiek izena eman ahal izan dute. Une honetan hiru lagunek aurkitu dute lan zenbait enpresatan.

→ Elikagaien Bankua denok ezagutzen dugun erakundea da. Bertan boluntarioen laguntzaz eskuzabal lan egiten da familia behartsuenei elikagaiak eskaini ahal izatea helburu. Ezkabarteko Udalak Elikagaien Bankuarekin sostengu eta lankidetzak akordio bat sinatu zuen. Bankua, hilean behin, lehen beharretarako ondasun partida bat prestatzeaz arduratzen da eta Udalak, Askotariko Eginkizunetarako Zerbitzuaren bitartez zehazki, entitate horren egoitzan fardelak bildu, antolatu eta Ibarreko familia onuradunen artean banatzen ditu, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak txostena eman ondoren.

Segur gauza asko esan gabe eta egin gabe ere gelditu direla. Udal batean ikusten ez den lan eta esfortzu handia izaten da. Aurkitzen ahal dugun arazo ekonomikoak eta administratiboak kontuan harturik, Alkatetzak honek bere borondate osoa agertu du bitartekari lana egin, negoziatu eta, ahal izan duen neurrian, laguntzeko, garrantzia eta beharrendaren mailaren arabera, Ezkabarte Ibarra herri bakoitzeko auzoko guztiak baikara, denok baikara Ezkabarte.

2015eko Aurrekontuak

2014ko abenduaren 11ko bilkura arruntean gehiengoz onetsi ziren **2015erako Aurrekontu Orokorrak**. Grafikoak aurreko urteekiko jarraitutasuna adierazten du, inbertsioetarako kontu-sailaren areagotzea nabarmen dela.



Eguberriak 2014-2015


Abendu hasierako bestek, hotzak, erosketek, argiek, giroan sumatzen den poztasunak ... denak igartzen du beste urte batez, gustatu edo ez, Eguberriak heldu direla. Udalak, ilusio eta maitasun handiz, etxeko txikienei bideraturiko jarduerak prestatzen ditu, gurasoen lan bizitza eta haien oporraldia batera eramateko modua era baita. Aurten erritmo eta musikaz gozatu ahal izan da zumba eskolekin eta tailerrekin. Horietan, beste urte batez, sukaldaritza izan da txikien gozamenak, dudarik gabe. Arratsalde, zinea kruspetekin eta "Pasadas las 4" taldeko nesken antzerki eszenaratze gozo eta entretenigarriarekin. Ezin falta opariak eta 2015erako nahi onak. Olentzero eta Ekialdeko Errege Magoak gure herrietako etxeetara iritsi ziren txikiak hunkiarazteko eta amets eginarazteko ...

Mila esker eskuzabal lan egin eta laguntzen duten pertsona eta entitate guztiei, gure txikiak Olentzerori egiten zaizkion segizio eta harrera beroarekin eta Ekialdeko Errege Magoen kabalkada handientsu eta magikoarekin gozatu eta dar-dar egin dezaten ahalbidetzen baitute.

ZERGAPEKOAREN 2015ko EGUTEGIA (Borondatezko ordainketa aldia)	
Kontzeptua	Borondatezko epearen bukaera
Zirkulazio zerga	Martxoak 31
Lurraren kontribuzioa (lehen seihilekoa)	Ekainak 30
Ekonomia-jardueren gaineko zerga (IAE)	Uztailak 31
Lurraren kontribuzioa (bigarren seihilekoa)	Azaroak 30

HERRIKO JAIK 2015

ADERITZ.....irailak 25	MAKIRRIAINazaroak 14
ANOTZ.....irailak 19	ORIKAIN.....uztailak 24, 25 eta 26
ARRE.....maiatzak 29, 30, 31 eta ekainak 1	ORRIO.....irailak 25, 26, 27 eta 29
AZOTZ.....abuztuak 7, 8 eta 9	SORAURENabuztuak 28, 29, 30 eta 31
ZILDOTZ.....ekainak 19, 20 eta 21	Ibarreko jaiak*ekainak 27 eta 28 ORRION
EUSA.....abuztuak 29 eta 30	*OHARRA: Ibarreko jaietako data zuzena Buletin honetan agertzen da, Ezkabarte Ibarreko egutegikoa okerra baita
EZKABAurriak 12	
GARRUESabendua 8	



Goi-tentsioko linea

2011. urtean Udal Etxean Orkoi en eta Ezkabarte Ibarrearen arteko goi-tentsioko linea bat eta azpiestazio bat eraikitzeko eskaera erregistratu zen.

Une hartatik bertatik, gaiaren garrantzia aintzat harturik, auzokoei dei egin zitzaion bi proiektuen (azpiestazioa eta linea) inguruan informazioa izan zezaten. Auzokoekin bildu eta haien iritzia bildu ondoren, Nafarroako Gobernuarekin, Iberdrolarekin eta Sare Elektroarekin biltzeko eskatu genuen, Ezkabarte Ibarreko auzokoen kezka eta iritzia haiei helarazteko. Orduz geroztik aunitz izan dira Nafarroako Gobernuarekin, Iberdrolarekin eta Sare Elektroarekin egindako bilerak eta haietan beti agertu dugu proiektuak eragiten digun ezinegona, gure ustez inolako justifikaziorik ez duen proiektua baita. Alkatezak beti, une orotan, informazioak eta gardentasunak lehentasuna izatea nahi izan du, eta, horregatik, bilera guztietan baldintza gisa Kontzejuetako buruak, zinegotziak eta udal teknikariak, eta Goi-tentsioko linearen aurkako plataformako bi kide izatea ezarri genuen.

Joan den 2014ko urrian, denon pozerako, Nafarroako Gobernuo Industriako zuzendari nagusia den Iñaki Morcillo udalerrri eta kontzeju ukituetako ordezkari zela instalazioaren aurkako plataformako partaideei adierazi zien Industriako ministerioaren planen barruan, 2015-20120 aldirako azpiegitura elektrikoei dagokien ez zela aurreikusten Orkoi en Ezkabarte arteko 220Kv-ko linea elektrikoa eraikitzea. Ukituekin egindako bilkuran, Morcillo jaunak aitortu zuen azpiegitura hori egiteko beharra ez zela presakoa gaur den egunean, eta iragarri zuen hemendik 10-15 urtera gutxienez ez zela gauzatuko.

Obra, momentuz, bertan behera gelditu bada ere, Iberdrolaren Nafarroako ordezkariak, bilera berean, gogoratu zuen Iruñerriko azpiegitura elektrikoak zabaltearen beharra eta Arre-Ezkabarten etorkizunean azpiestazioa instalatzea defendatu. Gaiaz, gaurkoz, lasaitu bagaitu ere, Udalak informaturik jarraituko du eta haren gainean gerta litezkeen berriei adi egonen da.

PREMIER CAR

Nueva apertura
TALLER de REPARACION de VEHICULOS
en Arre
Revisión completa de su vehículo

- CAMBIOS DE ACEITE •
- DISTRIBUCIONES •
- OFERTA NEUMATICOS •
- FRENOS •
- BATERIAS •
- ELECTRICIDAD •
- ESCAPES •
- PRE-ITV •



PIDA PRESUPUESTO SIN COMPROMISO
EN EL TFNO.: 948 361 808
O VENGA A VISITARNOS EN EL
POLIGONO DE ARRE, CALLE K, Nº 11
FRENTE A LA NISSAN (ARRE MOTOR)

premiercar@pcar.e.telefonica.net

Ezkabarte ibarreko ondare immateriala



Arre

Ezkabarteko Udalak 2014ko urriaren 16an egin-dako osoko bilkuran erabaki zuen Udalaren parte-hartzea **Ondare Immateriala izeneko proiektuan**, beste udalerrri batzuetan egin duten bezala.

Lana gure ibarreko ezagutzak, istorioak, pasadizoak eta ohiturak, aitona-amonengandik eta gurasoengandik seme-alaba eta bilobengana transmititu direnak, bildu eta aztertzean datza.

Labrit Patrimonio enpresak, elkarkidetzat hizarmena baten bidez Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin elkartua dagoenak, proiektua gauzatuko du.

Udala gure Ibarra osatzen duten herri guztietako hainbat lagunekin jarri da harremanetan eta, haien lekukotza eta bizipenei esker, elkarrizketak egin dira zeinetan, betirako, gurea den aldetik, islaturik gelditu baita urtetan zehar gertaturiko bizimoduaren bilakaera edo aldaketa. Ibilbide luze baten emozioak, oroitzapena eta, batzuetan, nostalgia. Aurki ikusiko dugu proiektuaren emaitza.

Parte hartu duzuen auzoko guztiei, mila esker ondare eder honengatik.



Arre



Makirriain



Azotz

Banka Etikoa

Banka Etikoa bitartekotza finantzariorako proposamen alternatiboa da, diruaren balio soziala justiziaren zerbitzurako erreskatatu eta bere diruarekin zer egiten den erabaki nahi duten pertsona ororen asmoak bildu nahi dituen.

Banka Etikoak gure diruaren (aurrezkiak) helmuga eragin sozial positiboa duten jarduera ekonomikoak (irizpide etiko-sozial zehatzak betez) finantzatzeko izanen dela bermatzen digu eta, gainera, bankuen sistema tradizionalak bazterturiko pertsona edo kolektiboek finantzatzeko bidea izan dezaten ahalbidetzen du.

Zehaztu eta argitu behar da banka etikoa, banka tradizionala bezala, jarduten duen herrialdeetako banku zentralak bermatzen dutela. **Ekonomia solidarioak proposatzen duen bezala, banka etikoaren xede pertsonak eta guztien ona dira, ez errentagarritasuna.**

Fiare banka etikoa "Banca popolare Ética" kreditu kooperatibaren parte da. Kreditu kooperatiba hori sustatzeko, beharrezkoa da bazkide kopurua zein kapital sozialaren munta handitzea, alternatiba finantzario hori posible egite aldera.

Ezkabarteko Udalak, 2014ko abenduko osoko bilkuran, ekimen hori sostengatu eta laguntzeko xedez, banka etikoaren eraikuntzan parte hartzea erabaki zuen bertako kide eginda eta zehazteko dagoen gutxieneko kapitala ekarriz. Horrela ekimen berri honi atxikimendua agertu zaizkion udal andanaren beste partaide bat izanen da. Ekarpenei horrek, beste gauza batzuen artean, balioko du mailegu bat eskatu behar duten eta, egun, paratzen dizkieten trabengatik zaila duten pertsona horiei, gure auzokoak barne, laguntza emateko.

Banka Etikoan parte hartu nahi dutenek hemen eskatzen ahal dute informazio zehatza:

FIARE NAVARRA:

REAS Navarra y Red Pobreza bulegoak
Artika k., 32 behea – Iruña
Navarra@proyectofiare.com
© 685 517 030 / 685 744 420

IPES

Tejeriak., 28 – Iruña
Asteartean 17:00etatik 20:00etara

www.proyectofiare.com





EZKABARTEKO UDAL KIROLDEGIA

Zenbait alderdiren esfortzu eta interesari esker, lortu da eztabaidan jarritako Ezkabarteko Udal Kiroldegia irekita jarraitzea. Hortaz, Ezkabarteko erroldatu eta bizilagunei zein interesdun orori bere zerbitzu eta jarduerak eskaintzen segitzen ahalko du.

Irailean, instalazioak kudeatzen dituen BPXport enpresak kirola egiteko konzeptu berria abian paratu zuen, prezio benetan interesgarriekin, oso neurri-zkoak direnak jende guztiarentzat, eta bereziki Ezkabarten erroldaturik direnentzat. Haren bitartez jarduera batzuk egin daitezke eta, hautaturiko ordainketa ereduaren arabera, instalazioek eskaintzen dituzten zerbitzuez ere goza daiteke. Horrek ekarri du bazkide eta erabiltzaile kopurua nabarmen igotzea, bai eta kiroldegia mantentzeko borrokan jarraitzeko ilusioa eta gogoak ere.

2013 eta 2014ko abonamendu sistemarekin, batez beste 120 abonatu inguru izan ziren. Tarifa berriekin, ordea, 2014ko abenduan 262 abonatu zeuden. Gauza bera gertatzen da ikastaroetan parte-hartzearekin, eskaintako ikastaroetan parte hartzen ari diren lagunen kopurua nabarmen areagotu baita.

Eurite handiak eta eraikinaren eraikuntza arazoak direla kausa, pilotalekuaren estalkian garrantzizko itaxur batzuk agertu dira eta, ondorioz, entrenamenduak eta partidak bertan behera utzi behar izan dira. Nondik zetozen arazoak egiaztatu dugu. Ahal bezain agudo behar bezalako konponketak gauzatuko ditugu estalkia baldintza onetan uzteko.

Ingurumari hauek gorabehera, irudi du kiroldegia buruz ikusten genituen aukerak onak direla eta betetzen ari direla. Espero dugu gorantz segitzea eta hobetzen jarraitzea, denon onurarako.



Kirola eta pilota eskolarako proiektua



Kirola osasungarria dela eta horretan aritu behar dugula begi bistakoa da gaur egun, txikienezat zein helduentzat. Kirola sustatzea denon afera da eta, horregatik, Udalak bat egin du kausarekin eta, ahal duen neurrian, Ibarreko kirol talde eta elkarteekin elkarlanean aritzen da, diruz laguntzen ditu eta babesa ematen die.

Ezkabarteko kiroldegian egiten ahal diren jarduera guztiez gain, berriki osatu den talde bat dugu: **EZK Running**. Elkarrekin gelditzen dira footing taldean egiteko. Interesa baduzu, deitu telefono honetara: **637 545 777**.

Halaber, **Avance-Ezkabarte K.Karen** partidez gozatzen ahal dugu, kategoria erregional goreneko ohiko partaidea, zeinek 6 eta 9 urte arteko neska-mutikoentzat Futbito Txiki eskola kudeatu eta mantentzen baitu.

Denok dakigu futbola masa kirola dela, baina izan badira minoritario izanagatik gure lurrian erroturik dauden beste kirol batzuk eta horiek ere eskaini nahi ditugu. Nor ez da eseri telebistaren aurrean pilota partida batez gozatzeko?

Nork ez ditu ezagutzen Galartza, Retegi, Arretxe eta Olaizolatarrak? **Udala interesaturik dago pilota eskola bat sortzen.** Bere garaian huts egindako saio bat izan zen. Ez zuen arrakastarik izan frontisean pilotarekin gogoz aritzeko izangai aski ez zelako izan.

Nafarroako Pilota Federazioak eskola berriei buruzko proiektu bat sortu du eta bertan Ezkabarteko pilota eskola sartuko litzateke, kontuan izanda horrek esfortzu, borondate eta parte-hartzeko gogo handia eskatzen dituela.

Eskola, profesional ez osaturik, kirolariei (haurrak eta nerabeak, jeneralean) eza-gutzak, trebetasunak, ideiak, kontzeptuak eta teknikak irakasteaz arduratuko litzateke, balioen prestakuntzari bereziki erreparatuz, eta kirol jarduera eta jarduera fisikoen jarduna eta prestakuntza humanoa eta soziala orientabide nagusia izanik.

► **Eskolako ikaslea izan eta mundu pilotazalea hobeki ezagutu nahi baduzu, Udalarekin jar zaitez harremanetan 948 330 341**

Anima zaitez!



GARAPENERAKO LANKIDETZA

Udal hau parte duen Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioak, 2014ko urriaren 16an, erabaki zuen Garapenerako Lankidetzarako Nafarroako Toki Funtzak 2014rako urteko deialdian dituen baliabideak banatzea.

34 proiektu jaso dira eta, udalek ematen dituzten ekarpenekin, Batzordeak **7 proiekturen** finantzazioa erabaki zuen:

Zkia	Emandakoak	Diru-laguntza
8	Edateko ura hartzeko hobekuntza Gokwe eskualdeko 6 landa eskoletan. Zinbabwe. Manos Unidas	24.000 €
17	Uraren hornidura Lokuapipi Kokuselei komunitatean. Iparreko Turkana. Kenia. Rode Fundazioa	18.915 €
21	Saneamendua eta heziketa osasungintzan Bamendjouko lehen hezkuntzako lau eskoletarako. Kamerun. Itaka Escolapios Fundazioa	24.000€
4	Osasuneko lehen laguntza gauzatzea Kingbwa osasun eskualdean, Kinshasan. Kongoko Errepublikako Demokratikoa Medicus Mundi Nafarroa	24.000€
7	Ingurune jasagarriak eta higiene jardunbide osasungarriak sortzea, haurren biziraupenean laguntzeko. II. fasea. Mauritania. UNICEF Nafarroako Batzordea	24.000€
1	Osasungintzan esku-hartzea Saharar populazio errefuxiatuarentzat. Errefuxiatuen eremuak. Tinduf. Aljeria ANARASD	24.000€
9	Haur osasuna bizkortzea Mokamboko landa komunitateetan pobrezian bizi diren haurren elikadura segurtasunaren bitartez: nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiapen bat abian jartzea, Mokamboko elikadura zentroarekin lotuta. Kongoko Errepublika Demokratikoa. VIDES boluntarioak	10.642,02€

Genero indarkeriaren aurka

Hemendik aurrera, osoko bilkuran onetsi zenari jarraikiz, Ezkabarteko Udala Buletinean, interes telefonoen barruan **016** sartuko da, genero indarkeriaren arloko laguntza telefonoa. Edozein tokitatik deitzen ahal duzu, egiten dituzun deiek ez baitute arrastorik utziko telefono fakturan.

**Ez izan beldurrik!
ez moztus!
Erabil ezazu...**



Jaiotzak

Beti izaten da poz ikaragarria umetxo bat jaiotzea; horregatik, hartu gure Zorionak eta ongietorria:

Valentina Manrique Mercader (Arre)
Adara Gonzalez Marcaida (Arre)
Ariane Iribarren Mendioroz (Arre)
Aimar Artazcoz Mellado (Cildotz)
Uxui Eslava Bella (Sorauren)
Enzo Cerdan Calvera (Eusa)
Nahia Asensio Elizari (Arre)

Heriotzak

Gure oroimenean daude:
Martín Yaben Elizaga (Arre)
M^a Josefa Istilart Vilches (Azotz)

TELEFONO INTERESGARRIAK:

Ezkabarteko Udala (Orikain)	948 330 341	Bidez Osasun Etxeak (Arre)	948 332 335
Kexak eta iradokizunak	012	Ezkabarte kiroldegia (Azotz)	948 330 758
Genero indarkeriaren aurka	016	Publizitatea Aldizkarian	948 248 324